

UDALAK 2013ko IRAILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.
Idurre Conde Santa Cruz and.
Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.
Aitor Miner Aginaga jn.
Beñat Amenabar Perurena jn.
Nahiara Sanchiz Arregi and.
Iker Goenaga Gubia jn.
Estefanía Morcillo Cerdan and.
M^a Jesus Egido Moreno and.
Jose Antonio Sanchez Almaraz jn.
Andoni Amonarraiz Gómez jn.
Jose Antonio Cuesta Sole jn.
Maria Otaegi Velez and.
Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

2013ko irailaren 24an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTUHARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2013-07-30 ETA 2013-08-27. - 2013ko uztailaren 30eko bileraren akta onartu da. H1! Alderdiko zinegotzia abstenitu egin da, bilera horretan izan ez zelako.

Abzurtukoa onartu egin da.

2.- 2013KO ABUZTUAREN 23TIK 2013KO IRAILAREN 19RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2013ko abuztuaren 23tik 2013ko irailaren 10era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.

- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- POLITIKA SOZIAL ARLOKO ESKUORDETZEA BALIOGABETZEN DUEN DEKREUAREN BERRI EMATEA. – Osoko Bilkurak Alkatearen Ebazpen honen berri jaso du.

“DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamahiruko irailaren bostean.

2011ko urriaren 7ko datarekin egindako dekretu bidez, Iker Goenaga Gubiarengan eskuordetu ziren Politika Sozialeko arloko hainbat eskuduntza.

Ditudan ahalmenaz baliaturik honako hau

ERABAKI DUT

- 1.- 2011ko urriaren 7ko datarekin dekretua egin zen. Iker Goenaga Gubia zinegotzi jaunari Politika Sozialaren arloko hainbat eskuduntza eman zitzaizkion. Gaurko datarekin bertan behera uztea.
- 2.- Erabakia Iker Goenaga Gubia zinegotzi jaunari jakinaraztea.
- 3.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 4.- Udaltzari ebazpen honen berri ematea.”

4.- POLITIKA SOZIAL ARLOKO ESKUORDETZEA ERABAKITZEN DUEN DEKREUAREN BERRI EMATEA. – Osoko Bilkurak Alkatearen Ebazpen honen berri jaso du.

DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamahiruko irailaren bostean.

2011ko urriaren 7ko datarekin egindako dekretu bidez, Iker Goenaga Gubiarengan eskuordetu ziren Politika Sozialeko arloko hainbat eskuduntza.

Gaurko datarekin eskuordetza baliogabetzea erabaki dut.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT

- 1.- Alkatetzari honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoa, ondoko udalkide honen **ESKU UZTEA:**

* GLORIA MENDINUETA YEREGUI. (BILDU): - **POLITIKA SOZIALA.**

- 2.- Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:
- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
 - Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
 - Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
 - Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.
 - Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.
 - Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
 - Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignaziorik baldin badago.
 - Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeko eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
 - Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
 - Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau haustek zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagokio.
 - Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekursoak ebaztea.
 - Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.
- 3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.
- 4.- Alkateak eskuordetzea ezeztatu ahal izango du.
- 5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.
- 6.- Kanpoan 24 ordutik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.
- 7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.

- 8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
- 9.- Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
- 10.- Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.
- 11.- Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.
- 12.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.
- 13.- Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio.
- 14.- Ebazpen hau irmoa da administrazio bidean. Honen kontra, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, nahi izanez gero, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Edo, bestela, zuzenean jar daiteke errekurtsua Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita. Horiez gain, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

5.- 2012KO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA. - Toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar dute. Aurrekontu Orokorraren likidazioak Alkatezaren dekretu bidez onartu ziren: 2013ko martxoaren 26an (Udalaren aurrekontua), eta 2013ko apirilaren 8an (Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua) .

Ogasun eta Ondare batzordea-Kontuetarako batzorde bereziak 2013ko uztailaren 19an egindako bileran 2012ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena ematea eta jende aurrean jartzea erabaki zuen.

Kontu hori jende aurrean jarri zen uztailaren 24ko GAOn (141 zk.), iragarki bidez, eta erreklamazioak egiteko epean ez da erreklamazio, eragozpen edo oharrik izan.

Honenbestez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. eta 63. artikulua kontuan hartuta,

Aztertu da ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde Bereziak 2013ko irailaren 20an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 9(BILDU).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.
- * Abstentzioak: 7 (3 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIA-LISTAK ETA 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Hernaniko Udalaren, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuaren eta Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren 2012. urteko Kontu Orokorra onartzea. Kontu Orokor horrek ondorengo agiri hauek ditu:

- a) Egoeraren Balantzea.
- b) Galera eta Irabazien Kontua.
- c) Memoria, honakoa azaltzeko:
 - Finantzaketa-taula
 - Zorraren egoera
 - Informazio-eranskina; aurrekon-tuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatzen dituen.
- d) Aurrekontuaren likidazioa.
- e) Egiaktaketa Balantzearen, Kreditu aldaketen egoera eta Egoeraren eta Balore Mugimenduaren Egoeraren Eranskinak.

6.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN OSAGARRI DEN UDAL ORDENANTZA MULTZOAREN I. LIBURUKO I TITULUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONARPENA. - Aurrekari hauek ikusita:

Hernaniko Udalak 2011ko apirilaren 11n egindako osoko bilkuran Udal Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina behin betiko onestea erabaki zuen. (2011ko maiatzaren 13an argitaratu zen GAOn).

Aipatutako planeamendu orokor horretan jasotzen den araudiak ez ditu arautzen tresna horren berezko hedadura eta izaeratik kanpo gelditzen diren gaiak, eta indarreko hirigintza-legeriak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 60.2, 75 eta 99 artikulua) aurreikusten du Udal Ordenantzen bitartez arautu beharko direla horiek zehazki. Ondorioz, Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak Ordenantza horiek geroago egitea eta onartzea proposatzen du.

Testuinguru honetan, Hernaniko Udalak beharrezko eta egoki ikusi du Udal Ordenantza Multzo hau idazteari ekitea, eta horren helburua hainbat arlotako gaiak arautzea izango da (batzuk jada aurrez aztertuak ditu Udalak, eta beste batzuk berriak dira), udalerrian indarrean dagoen planeamendu orokorraren eskaerari erantzunez, Hirigintza Arau Orokorretan nola Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Garapenerako Planeamendu Programan berariaz aurreikusita dagoen moduan.

Hala, Udal Ordenantza Multzoa prestatu du Udalak eta, egin beharreko tramitazioa egin ondoren, Ordenantza horien I. LIBURUA izenekoari behin betiko onarpema ematea erabaki zuen 2013ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran. I. Liburuaren artikuluen testu artikulatua Atariko Tituluak eta beste sei Tituluek osatzen dute eta, horietako lehenengoa "Eraikuntza-Ordenantzei" buruzkoa da.

Ordenantzen testu osoa 2013ko ekainaren 19an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hernaniko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko ekainaren 14ko bileran ezetz erantzun zion XX. mende hasieran Latsunbe auzoan eraikitako "Villa Sorgintxulo" famili bakarrarentzako eraikina bi etxebizitza independentetan zatitzea proposatzen zuen kontsultari, hala egitea udalerrian indarrean

dagoen Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Hirigintza Arau Orokorren 57. artikuluan 2.A atalak dioenaren kontrakoa baita.

Horren ondotik eskatzaileak beste idazki bat egin zuen, udalak hartutako erabakia berrazter zezala eskatzeko, eta idazki horren harira Hirigintzako Udal-Bulegoak 2013ko uztailearen 15ean beste txosten bat egin zuen. Txosten horrek, besteak beste, planteatutako zatiketa-proposamenari buruzko iritzia emateko aplikatu beharreko indarreko araudiaren azterketa hau egiten du:

“Dentsitate txikiko “a.30” bizitegi-eremuetan kokatutako familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak zatitzearen ondorioz gehienez ere onar daitezkeen etxebizitza kopuruari dagokionez 57. artikuluan 2.A atalean jasota datozen irizpideak planeamendu baten edo familia bakarreko tipologia berezi bat arautzen zuten ordenantza batzuen arabera egindako eraikuntzen kasu orokorretan pentsatuz hartu ziren. Eta ikuspuntu horretatik, araudiak jasotako zatiketa-murrizketak zuzenak eta zuhurrak dira, saihestu egiten dutelako tipologiaren beraren eta horrelako eraikuntza mota ekarri zuten hirigintza planetan finkatuta geratu ziren planteamenduen justifikatu gabeko aldaketa.

Hala ere, hartutako irizpideak desegokiak gertatzen dira kasu berezietarako, hau da, planeamendutik sortu ez diren familia-etxebizitzentzat. Kasu horiek bakanak dira udalerriko hiri lurzoruan, eta denak 1954ko Plan Orokorra indarrean sartu aurretik eraikitakoak. Horien artean dago, hain zuzen, Sorgintxulo etxea, txosten honetan aztertzen ari garen kontsultaren gaia. Kasu horietan, eraikinen neurriak eta ezaugarriak kontuan hartuta, barrutik zatitzeko aukera egoteak gutxitu egiten du arkitektura edo hirigintza aldetik emaitza kaltegarriak izateko arriskua, elementu katalogatuak diren aldetik horrek dakartzan mugak bete behar izatea ahaztu gabe. Hernaniko Udalerrian, eta Latsunbe auzoan, baditugu lehen egindako antzeko beste esku-hartze batzuk, eta haien emaitza ona begi bistakoa da.

Horiek horrela, txostengilearen iritziz, hirigintza aldetik justifikatua legoke indarrean dagoen araudiaren eduki orokorra ez aldatzea eta, aitzitik, kasu berezi horietarako nabardurak zehaztea, berriki onartutako Eraikuntza Ordenantzaren gehitzeko artikulua osagarri bat prestatu, izapidetu eta onartuz.

Txostenak zioena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko abuztuaren 2an egindako bileran erabaki hau hartu zuen:

“1.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko ekainaren 14an hartutako erabakia berrestea. Erabaki horren bidez jakinarazi zen Sorgintxulo etxea bi etxebizitza independentetan banatzeko proposamena ez zela onargarria, zeren, eraikina katalogatua egotea alde batera utzita, eraikina bitan banatzea Hernaniko Udalerrian indarrean dauden Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Hirigintza Arau Orokorren 57. artikuluan 2.A atalean jasotakoaren kontra doa.

2.- Hori hala izanda ere, udalaren ustez orain planteatutakoa salbuespenezko kasuen artean sartzen da, ez baitago une honetan indarrean dagoen hirigintza araudian bereziki arautua, araudi horrek kasu orokorrak bakarrik barne-hartzen dituelako. Hori konpontze aldera **egokia eta beharrezkoa da duela gutxi onartutako Eraikuntzaren Ordenantzari gaineratzeko artikulua osagarri bat idaztea, tramitatzea eta onartzea. Artikulu horretan jasota agertuko da 1954ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra indarrean sartu aurretik eraikitako familia bakarreko eraikinak zatitzeko aukera, parametro batzuen barruan.**

3.- Hirigintzako Udal Bulegoa izango da espedientea bideratzeko beharko den hirigintza arloko dokumentazioa lantzeaz arduratuko dena.

4.- Sorgintxulo etxearen eraikina eraberritzeko eta banatzeko prestatu beharko den egitasmoak bete beharreko baldintza tekniko eta hirigintzazkoak izango dira, hain zuzen, Hernaniko Udalerrian indarrean dagoen Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Hirigintza Arau Orokorren dokumentuan eta Hernaniko Udalerrian indarrean dauden Eraikuntza Ordenantzetan (Lehenengo Titulua) jasota datozenak."

Tokiko Gobernu Batzarrak erabakitakoa betetze aldera, Hirigintza-Bulegoak agiri prestatu du, alegia, Eraikuntza Ordenantzei gaineratzeko artikulua osagarria, (indarrean dagoen 1. Liburuaren Lehen Titulua) zeinen bidez bereziki araututa geratuko baita 1954ko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra indarrean jarri aurretik eraikita eta hirigintza antolamenduaren bidez kontsolidatuta dauden familia bakarreko edo bi familiako etxeak zatitzeko aukera.

Artikulu hori hemen sartuko da: 1.2. Kapituluak - Etxebizitzetarako lur-zatien ("a" lur-zatiak) eraikuntza-ordenantzak, zehazki Bigarren Atalean (1.2-2) "Etxebizitza-eraikineko zenbait elementu arautzen dituzten baldintzak".

Aztertu da espedientean jasota dagoen txosten juridikoa.

Kontuan hartu da jarraian aipatzen den araudiak ezartzen duena:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 60.2, 75 eta 99 artikulua eta zortzigarren Xedapen Gehigarriaren 4. eta 5. atalak.
- Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a), 22.2 d) eta 47.1, 49, 70.2 eta 84.1 a) artikulua.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 51 eta 52.1 artikulua.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2013ko irailaren 16ean emandako irizpena.

Zera erabakitzen da, 4 Zinegotzien abstentzioarekin (3 Sozialista Taldeak eta 1 H1!).

LEHENENA.- Hastapenez onartzea Hirigintza Antolamenduaren Osagarri den Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburuaren Lehen Tituluaren (Eraikuntza Ordenantzak) aldaketa, zeinen bidez artikulua bat gehituko baita 1.2. Kapituluak - Etxebizitzetarako lur-zatien ("a" lur-zatiak) eraikuntza-ordenantzak, zehazki Bigarren Atalean (1.2-2) "Etxebizitza-eraikineko zenbait elementu arautzen dituzten baldintzak" izenekoaren barruan.

BIGARRENA.- Espedientea jende aurrean ikusgai jartzeko eta interesdunei entzuteko 30 eguneko epea irekitzea, nahi duen orok erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzan. Epe hori hastapenez onartzeko erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

HIRUGARRENA.- Epe horretan inork erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez badu erabaki hau behin betiko hartutzat joko da eta alkate-lehendakariak erabakia argitaratu eta gauzatzeko ahalmena izango du.

7.- EREÑOTZUKO UG.ER.04 SEKTOREKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN ELEMENTUEN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENEA, IÑIGO ELKOROK ETA ISMENE BAKEDANOK AURKEZTUA. - Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko abuztuaren 2an egindako bileran hasierako onarpena eman zion

Ereñotzuko UG.ER.04 Arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren elementuen aldaketari. Plan hori Iñigo Elkorok eta Ismene Bakedanok-k aurkeztua da.

Espedientea 20 egunez jende aurrean ikusgai egon da, 2013ko abuztuaren 16ko GAOn argitaratuko iragarkiaren bidez.

Jende aurrean ikusgai egon den bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2013ko irailaren 16ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehena.- Iñigo Elkorok eta Ismene Bakedanok aurkeztutako Ereñotzuko UG.ER.04 Arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren elementuen aldaketa behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Behin betiko onartutako agiriaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza Plangintzako erregistroari bidaltzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau GAOn eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 89.5 artikuluan jasota datorrena betetze aldera.

8.- STA. MARIA MAGDALENA ZAHARREN EGOITZA HANDITZEKO ETA FORU ALDUNDIKO ARAUTEGIARI EGOKITZEKO EGINDAKO OBRA. ABAL BAT ITZULTZEA ETA NAHITAEZKO EXEKUZIOA HASTEA. - Sta. Maria Magdalena zaharren egoitza handitzeko eta arautegi foralari egokitzeko egindako obra kontratua, CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.-ri esleitu zitzaizkion 2006ko azaroaren 9an.

Obra bukatu eta garantia epean, hainbat akats eta hutsune ikusita, egin beharreko konponketak egiteko epea eman zaio esleipendunari dekretu bidez egindako errekerimenduetan.

Obra egikaritzaren hutsuneetako batzuk konpondu gabe jarraitzen dute udal arkitekto teknikoaren txostenaren arabera.

Kontratazio eta ondare teknikariak bere txostenean dio, bermeak esleitutako obra oinarrien eta proiektuaren arabera burutzeari eta bere osotasunean exekutatzeari lotuta daudela, hortaz, eta esleipendunak bere kabuz egin ez duenez, nahitaezko exekuzioan burutu beharko duela udalak obra akatsen zuzenketa, beti ere, esleipendunaren kontura eta ezarritako behin betiko bermea atxikiz, beharrezkoa bada.

CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.k egindako abalak itzultzeko eskaerak ikusita eta udal arkitekto teknikoaren proposamenaren baitan,

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2013ko irailaren 16ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Sta. Maria Magdalena zaharren egoitza handitzeko eta arautegi foralari egokitzeko egindako obra kontratua burutzeko CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.k jarritako bi fidantzetako bat, 167.560,58 €tako itzultzea.

Udalak exekuzio subsidiarioan, eta esleipendunaren kontura, burutu ditzala Udal arkitekto teknikoaren txostenean zehaztutako konponketak. Horretarako, ezarritako beste behin betiko bermea, 46.136,63€tako, atxikitzea.

Akordio hau interesdunei eta Kontu-hartzaileari jakinaraztea.

9.- GALDERAK ETA ESKARIAK.- Alkateak errumaniarren asentamenduari buruzko eta horren inguruan sortu berri den azken polemikari buruzko informazioa eman du.

Azken Hirigintza Batzordean gaia aipatu zen, eta udalak egindakoa azaldu, baina geroztik beste bi bilera egin dira.

Jakina denez, proiektu honetan Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa, Astigarragako Udala eta Hernaniko Udala gaude sartuak, Romi Bidea elkartearekin elkarlanean. Eusko Jaurlaritzako gizarte gaietako arduradunekin elkartu gara zer gertatzen ari den aztertzeko, izan ere, sail bat lanean ari da eta beste bat, aldiz, mugak jartzen.

Eusko Jaurlaritzako gizarte gaietako eta URAko arduradunekin elkartu ginen. Ados gaude, asentamendua uholde arriskua duen leku batean dago kokatua eta onena lekuz aldatzea izango litzateke. Horren ondotik sortzen den galdera da nora eramango ditugun eta horren kostua nork ordainduko duen. Guk azaldu genien ez zegoela uholde arriskurik ez duen leku batera aldatzeko aukerarik.

Beste aukera da bertan jarrai dezatela eta, uholde arriskua duen lekua izanik, beste lekuetan hartzen diren neurri berak hartzea hondamendirik gerta ez dadin.

URAK esaten du egiten ari diren bi eraikinak bota behar direla eta, orduan, sortzen den galdera da, zer egin errumaniarrak bizi diren txabolekin.

Guretzat arazoa ez da bi eraikin horiekin zer egin, baizik eta kanpamendu osoarekin zer egin; gaiari irtenbide bateratua eman behar zaio.

Ez gara ados jarri. Gure planteamendua da, bota behar baldin bada baita ere esan beharko digutela zer egin asentamenduarekin.

Honen guztiaren ondorioz, udal taldeek hainbat kontu planteatu dituzue eta sozialistek txosten tekniko bat eskatu. Txosten hori azken orduan jaso eta helarazi dizuegu.

Gure harridurarako txosten teknikoak dio herrigunea dela, eta bertan ekipamendua eraiki daitekeela eta distantziak betetzen dituela.

Garbi dago URAK baldintzak jarri behar dituela, bada, jar ditzala. Hirigintza aldetik ez dago arazorik, baina plan berezi bat egin behar da.

Txosten teknikoak eskutan dugula, kalifikazioa eta ondorio juridikoak aztertu behar dira, eta irtenbide posibleak bilatu.

Udalak ez du kanpalekua lekuz aldatuko eta gu prest gaude eseri eta 2017. urtera arte martxan jarriko den programari buruz hitz egiteko. Uholde arriskua dagoenetan beste auzoetan erabiltzen dugun protokolo bera erabiliko dugu.

Erakunde guztien artean bilatu behar dugu irtenbidea eta, garbi dago guk ez ditugula bi eraikin berriak botako.

Amonarraiz jaunak (EAJ) eskatu du aurrerantzean ere zer hitz egiten duten jakinaraz diezaietela.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) esan du harritura dagoela txostenak dioenarekin; beraiek ere aztertzen ari direla arazoari irtenbide bateratu bat ematea eta galdetu du ea URAK eperik eman ote dien.

Alkateak erantzun du ez dagoela eperik.

Arratibel jaunak (H1!) esan du txostenak dioena harritu egin duela eta galdetu du ea badagoen datorren astean batzorde bilera bat egiterik, gaia sakonki aztertzeko.

Alkateak erantzun dio hurrengo bileran aztertuko dela eta denek elkarrekin asentamendura egin behar zuten bisita bertan behera geratu dela. Bisita hori osoko bilkura bukatu ondoren egitekoa zen.

- Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) bidegorriaren lanak hasiak ote diren galdetu du.

Alkateak labur-labur azaldu du zein diren hasitako lanak eta zein neurri hartu diren.

Amonarraiz jaunak (EAJ) galdetu du eta Santa Barbarako bizilagunen batek zerbait galdetzeko deitu ote duen.

Alkateak eta Zerbitzu Publikoetako zinegotziak erantzun diote beraiei ez dietela ezer esan.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:25 orduetan bukatu da, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.